



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 25a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—3/2017 Foru Legea, apirilaren 6koa, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena. Akats zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuak baliatu izan duen hezkuntza-politika berriak dezan eta Nafarroa hezkuntza-itun bat lortzeko lan egin dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiroadina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan. Akats Zuzenketa (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere subiranotasunaren aurkako eraso gisa eta Nafarroan eraildako 3.500dik gora pertsonen eginiko laido gisa hartzen baitu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren erabakia, bertan behera uzten duena Errepublikaren bandera 2017ko apirilaren 14an bere fatxadan jartze aldera Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

3/2017 Foru Legea, apirilaren 6koa, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duen apirilaren 6ko 3/2017 Foru Legean. Foru Legea 2017ko apirilaren 5eko 55. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egiten da:

5. orrialdean, honako hau esan ordeztu:

Lehenengo xedapen iragankorra.

Honako hau behar du:

Xedapen iragankorra.

Iruñean, 2017ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuak baliatu izan duen hezkuntza-politika berrikus dezan eta Nafarroan hezkuntza-itun bat lortzeko lan egin dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hezkuntza Departamentuak baliatu izan duen hezkuntza-politika berrikus dezan eta Nafarroan hezkuntza-itun bat lortzeko lan egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken urteotan, bai Espainian bai Nafarroan ere, egiaztatu da hezkuntza-sistamarako zer garrantzitsua den, alde batetik, arauen egonkortasuna, gobernuan dagoen alderdiaren interes politiko eta ideologikoak alde batera utziz, eta beste alde batetik, aplikatuko diren politikak inplikaturako eragile guztien arteko adostasunean eta ulermenean oinarritzea.

Hori dela eta, gizarte osoak, eta bereziki hezkuntza-komunitateak, eskatu dute hezkuntzari buruzko Estatu-itun handi bat ezartzea, garatu

behar diren politikak adostuko dituen eta egonkortasuna ekarriko duena, eta ez soil-soilik une jakin bateko hezkuntza-arduradunen edo gobernuko indar politikoaren iritzia jarraikiz.

Espainian, LOMCE hezkuntza-komunitate osoarekin eta ordezkari politikoekin adostu gabe onetsi eta aplikatu izanak eztabaida garrantzitsu bat sorrarazi du, eta horren ondorioa izan da hura ez aplikatzea edo mantsotzea, zenbait gai polemikotan, esate baterako, hezkuntza-sistemaren ebaluazioetan. Azken hauteskundeetatik sorturiko Espainiako Gobernuak berak, itunaren aldeko borondatea adierazi zuen, eta ildo horretan zenbait ekimen garatzen ari da, Diputatuen Kongresuaren zein Hezkuntza Ministerioaren beraren aldetik. Itunaren aldeko borondate hori beste autonomia-erkidego batzuetan ere adierazi da, zenbait ekimenean bidez.

Eztabaida hori Nafarroako Foru Komunitatean ere gertatu da. Hezkuntza Departamentuak hezkuntza politika sektario bat aplikatu du, oinarri gehiago zuena irizpide politiko eta ideologikoetan hezkuntza eta pedagogiako planteamenduetan baino. Horrek astindura garrantzitsuak eragin ditu hezkuntza komunitatean berean eta Nafarroako Parlamentuko alderdietan.

Zenbait ekimen eta erabaki aurkakotasunaren eta ziurgabetasunaren sorburua izan dira, esate baterako, Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko programari, bereziki Ingelesez Ikasteko programari, eman zaion trataera, lan eskaintza publikoa, beken deialdia, eskola-aurreinskripzioa eta kanpaina, edo Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan onartuak izateko prozesua. Horrekin batera, Hezkuntza Departamentuko arduradun guztien kargu-uzte edo dimisioek, legegintzaldiko bi urte ere bete gabe, ikusarazten dute Gobernuaren hezkuntza-politika berrikusi behar dela eta Nafarroan ere hezkuntza-itun batera iritsi behar dela,

ikuspegi politikotik eta sozialetik, hezkuntzaren kalitatearen egonkortasuna eta bermea lortzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du, Hezkuntza Departamentuak

baliatu izan duen hezkuntza-politika berrikus dezan eta Nafarroan hezkuntza-itun bat lortzeko lan egin dezan, hezkuntza komunitatearekin eta bertan inplikaturako eragile guztiekin adostua.

Corellan, 2017ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernu-a premiatzen da Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Osoko Bilkurak 2017ko martxoaren 30ean onetsitako erabaki baten testuan. Erabaki horren bidez Espainiako Gobernu-a premiatzen zen Nafarroako Foruzaingoa sar dezan erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartzen dituen Errege Dekretuan. Erabaki hori 2017ko apirilaren 5eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, testu zuzena osorik argitaratzen da, akatsa zuzentze aldera. Hona :

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuari helaraz diezaion Nafarroako Foruzain lanbidea jarduera nekagarri, arriskugarri, osasungaitz edo toxikoen artean sartzeko borondatea, erretiro-adina aurreratzeko moduko zuzentze-koefizienteak ezarri ahal izateko.

2. Espainiako Gobernuari eska diezaion Nafarroako Foruzaingoa sartzeko tokiko polizien erretiro-adina aurreratzeko murriztapen-koefizienteak ezartze aldera prestatzen ari den errege dekretuan, behin eginda araudiak ezartzen duen nahitaezko txostena, istripu-kopuru orokorra aztertzea adinaren arabera eta bajaren iraupenaren

arabera, bai eta muturreko istripu-kopuru ere, bajaren uneko langile kopuruarekikoa.

3. Espainiako Gobernu-a premiatzea 1698/2011 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren aplikazioa ahal den neurrian ahalbidetu dezan, emaitza egoki bat ahalik eta lasterren lortzearen.

4. Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordean akordio bat lor dadin, Estatuak urteko kopuru bat finantzatzeko, erretiro adina aurreratzearen eta erretiroa aurreratzeko den urte horietako prestazioak handitzearen ondoriozko kotizazio-galeratik ezarri beharko liratekeen kopuru ginkargatuei dagokiena. Zenbateko hori izanen da Estatuako segurtasun kidego eta indarren kideek klase pasiboen araubidean erretiro aurreratu hartzeko dutenean Estatuako Administrazioak ordaintzen duenaren parekoa.

Langileen kontingentzia arruntengatik kotizazioaren gehikuntza-portzentaje gisa ordaindu beharreko zenbatekoa eta Nafarroako Foru Administrazioak ordaindu beharreko portzentajea kasuko negoziazio-esparruan aurkeztuko dira."

Iruñean, 2017ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere subiranotasunaren aurkako eraso gisa eta Nafarroan eraildako 3.500dik gora pertsoneri eginiko laido gisa hartzen baitu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren erabakia, bertan behera uzten duena Errepublikaren bandera 2017ko apirilaren 14an bere fatxadan jartze aldera Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 12an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere subiranotasunaren aurkako eraso gisa eta Nafarroan eraildako 3.500dik gora pertsoneri eginiko laido gisa hartzen du Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak eskatuta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak hartuta-

ko erabakia, bertan behera uzten duena Errepublikaren bandera 2017ko apirilaren 14an bere fatxadan jartze aldera Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia, demokraziarekiko, giza eskubideekiko eta balio errepublikanoekiko konpromisoaren erakusgarri”

Iruñean, 2017ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

